

EZKIO-ITSASO / Maroko-ren inguruko solasaldia eta ipuina

Ezkio-Itsasoko liburutegiaren eta Udalaren eskutik, Maroko-ren inguruko solasaldia eta ipuin kontaketa ospatuko da herrian hurrengo astean. Datorren ostiralean, abenduaren 30ean, aurrera eramango da ekitaldi berezi hau Ezkio-Itsason. Honetan 32 urte dituen Khadija-k eta 10 urteko Nisrinek, bere alabak, Maroko-ren inguruko solasaldia eta ipuin-kontatzea eskainiko digute Anduaga Etxean arratsaldeko 18:00etan.

Khadija Marokokoa da, Casablanca-koa konkretuki, eta hamaika urte daramatza Ezkio-Itsason gure artean bizitzen; Nisrin eta beste bi ahizpa txiki berriz, hemen jaioak dira. Bikote honek Marokoan haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak nola jaio, bizi eta hiltzen diren kontatuko digu. Han dituzten ohitura, balioak, gurekiko ezberdintasunak... aipatuko dituzte, eta eskulangintzaz, gastronomiaz, monumentuez edo turismoaz ere hitz egingo dute. Aldi berean, bertaratuek nahi duten guztia galdetzeko aukera izango dute.

Ipuina eta bizkotxoa

Ekitaldia amaitzeko Khadijak ipuin bat arabieraz kontatuko du eta Nisrinek euskaratu egingo du. Azkenik, beraiek prestaturiko tea eta bizkotxoa dastatzeko aukera egongo da Anduaga Etxean. Haur eta helduentzako saio benetan interesgarria izango da!